

Hezkuntza finantzario kritiko eta etikoa gizartea eraldatzeko

#denbora bankua

finantza kri e etikoak

#alternatibak

#ekonomiafeminista

#desberdinkeria

#bidezkotrukea

#trukea

#etxegabetzeak

#monetasoziala

#diruarenbalioa

#finantzaetikoak



Hezkuntza finantzario kritiko eta etikoa gizartea eraldatzeko

Argitaratzaileak:



Araba

Eulogio Serdán 5 • 01012 Gasteiz

☎ 945 141 104 ☎ 945 144 302
araba@steilas.es

UPV/EHU Arabako Campusa
Ikasgelategia, 204. Bulegoa • 01006 Gasteiz

☎ 945 013 397
steilas-araba@ehu.es

Bizkaia

Jose Maria Eskuzka 1, 1. esk. • 48013 Bilbo

☎ 944 100 298 ☎ 944 101 360
bizkaia@steilas.es

UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Liburutegiko eraikina 1. solairua • 48940 Leioa (Bizkaia)

☎ 946 012 434 ☎ 946 012 435
steilas-bizkaia@ehu.es

Gipuzkoa

Basotxiki 30-34 atz. • 20015 Donostia

☎ 943 466 000 ☎ 943 453 627
gipuzkoa@steilas.es

UPV/EHU Gipuzkoako Campusa.
Ignacio M^a Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1 • 20018 Donostia

☎ 943 018 436 ☎ 943 018 281 ☎ 943 018 140
steilas-gipuzkoa@ehu.es

Nafarroa

Joaquin Beunza, 4-6 behea • 31014 Iruñea

☎ 948 212 355 ☎ 948 229 790
nafarroa@steilas.es

www.steilas.es



Bizkaia

Kapelagile Kalea 2, 3. pisua • 48005 Bilbo

☎ 622 66 14 78
info@finantzazharatago.org

Gipuzkoa

Zarautz Kalea 86, B/6 • 20018 Donostia

☎ 622 66 14 78
info@finantzazharatago.org

<https://finantzazharatago.org>



Laguntzen dute:



Aurkibidea

1. Sarrera	04
2. Helburuak, gaitasunak, edukiak	06
3. Erabilera gida	08
4. Saio blokeak ikasturteko-ziklo akademikoko	10
4.1. Lehen hezkuntza: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila	11
4.2. Bigarren hezkuntza: DBHko 1. eta 2. maila	15
4.3. Bigarren hezkuntza: DBHko 3. eta 4. maila	19
4.4. Batxilergoa: Batxilergoko 1. eta 2. maila	23
5. Beste baliabide batzuk	28
6. Eranskinak	30
I. Eranskina. 1. Unitate didaktikoaren 1. saioko jolasa	31
II. Eranskina. Moneta soziala (tokikoa) eta diruaren zirkulazioa	41
III. Eranskina. Gizartean gailentzen diren estereotipoen dinamika	44
IV. Eranskina. Bizitza duina	51

#ekonomiafeminista

1. Sarrera



Unitate didaktiko hau Lehen Hezkuntzako 5.-6. mailatik Batxilergora arteko ikasleentzat egina dago, eta **STEILAS** eta **Finantzaz Haratago** eragileen elkarlanari esker sortu da.

Haren bidez, sistema ekonomikoaren inguruko ikuspegi kritiko bat eskaini nahi da, eta bizitza erdigunean jartzen duten beste antolaketa era batzuk aurkeztu nahi dira. Unitate didaktiko honetan, ikasleek eta irakasleek gaiak aztertzeke era ezberdin bat topatuko dute, ikuspegi kritiko eta eraldatzaile batetik, balioa emateko pertsonen eta planetaren zerbitzura dagoen eta gutxi batzuen onura helburutzat ez duen ekonomia bat sustatzeak duen garrantziari.

Unitate didaktikoak ikasleari lagundu egingo dio beste errealitate batzuk pentsatzeko eta ezagutzeko bidean, bultzatu egingo du zalantzak eta jakin mina izatera, eta lagundu egingo dio justifikatzen, argudiatzen eta aztertzen, haren autonomia sustatuz eta errealitatea beste ikuspegi batetik erakutsiz. Azken finean, lan horrek pentsamendu kritikoa sustatuko du.

#trukea

#diruarenbalioa

#finantzaetikoak


#desberdinkeria

#monetasoziala



#bidezkotrukea

#etxegabetzeak



#denborabankua

#alternatibak

Finantza erakundeek eskolan duten eragina

Sistema kapitalista egitura ekonomiko huts bat baino askoz gehiago da. Haren helburu nagusia da bere gailentasun juridiko, ekonomiko eta politikoa mantentzea eta erabiltzea, eta gai da horretarako pentsamoldeak eta joko arauak sortzeko, gizarteak bere egiten eta onartzen dituenak, gainera.

Bide asko dago sistema horren mezua zabaltzeko, eta bat, funtsezkoa, hezkuntza da. Azken urteotan, gero eta konpainia pribatu gehiagok jarri dituzte abian ikasgeletan hezkuntza finantzarioa lantzeko proiektuak, gehienak unitate didaktiko itxurakoak. **STEILASek** eta **Finantzaz Haratagok** eragin horri aurre egiteko egindako lan honek lagundu egiten du, gehienbat ikasleei, errealitate finantzarioa beste ikuspegi batetik ikusten.

Lan honen ardatza finantza etikoak dira. Finantza etikoak sistema finantzarioarekin eta, zehazki, bankuekin pozik ez zeuden zenbait pertsonak egindako galdera batetik datoz: etikoa al da espekulazioan dabil-tzan finantza erakundeen jokabidea, haien helburu bakarra etekin ekonomikoa lortzea bada?

Finantza etikoak


Uste dugu sistema finantzario bidezko eta jasangarri baten aldeko sentzibilitatea, bizitza erdigunean jarriko duen baten aldekoa, ikasgelan bertan hasten dela. Halaber, sistemarekin egiaz kritikoak eta gogoe-tatsuak izateko, ezinbestekoa da eztabaidarako galderak ezartzea oso goiz, eta, gainera, zuzen-zuzenean ezagutzea beste alternatiba posible batzuk, ikasleak jakin ahal izan dezan dirua bitarteko bat dela, eta ez helburu bat bere horretan, eta gauzak ezberdin egin daitezkeela.

Gizartean, etikarentzako gune arrotzat jotzen da ekonomia, eta iritzi horrek indar handiagoa du finan-tzaren alorrean. Dena den, finantza etikoak ez dira ideia bat soilik, baizik eta posible dela frogatu den eta frogatzen jarraitzen den egitate bat ere bai.

Hainbat pertsonak, erakundeak eta mugimendu sozialek sorrarazi zuten finantza etikoen mugimendua, nazkatuta baitzeuden finantza sektorea soilik inbertsioen jasangarritasun ekonomikoaz arduratzeaz, kon-tuan hartu gabe jarduera ekonomikoek zein ondorio zituzten ingurumenaren eta gizartearen alorrean. Hainbat faktorek bereizten dituzte finantza etikoak egungo finantza sistemaren barruan:

- Ez dute eragiketarik egiten paradisu fiskalekin, ez dute espekulazio eragiketarik egiten eta ekonomia errealeko proiektuak bakarrik finantzatzen dituzte, bereziki ingurumenaren eta gizartearen ikuspegitik eragin positiboak dituzten proiektuak.
- Eragin positiboa duten sektoreak dira haien espezialitatea: energia berriztagarriak, lankidetz-a, bidezko merkataritza, nekazaritza ekologikoa, ekonomia soziala eta inklusioa, eta abar.
- Gardentasun osoz aritzen dira, gehienbat beren komunikazio bitartekoak (online eta offline) erabiliz elkarteei, kooperatibei eta enpresei emandako finantzazio eta kredituen zerrenda osoa argitaratzeko.
- Finantza etikoen helburua da dirua bitarteko gisa erabiltzea, eta ez helburu moduan, per-sonak erreferentziatzat hartuz Ekonomia Sozial eta Solidarioaren esparruan.
- Finantza etikoek erreparatu egiten diete ekintza ekonomikoen ekonomikoak ez diren ondorioei.
- Kredituak, era guztietan, eskubide bat izan behar du, eta finantza sistematik baztertuta egon diren pertsonak kreditua lortzera heltzea sustatzen da, emakumeak, bereziki.
- Erraztu egiten da alternatiba ekonomikoetan parte hartzea ez soilik bazkideek, baizik eta aurreztaileek ere bai.

2. Helburuak, gaitasunak, edukiak



Helburu orokorra

Unitate didaktiko honen bitartez, sistema ekonomikoari buruzko ikuspegi kritiko eta eraldatzaile bat azaldu nahi zaie ikasleei, eta irakasleei eta pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia bat izatearen garrantzia planteatu, gutxi batzuen onura helburu izango ez duena.

Helburu didaktikoak

Diruak eguneroko bizitzan duen garrantzia baloratzen **ikastea**.

Ikasleek kontsumo arduratsuaren kontzeptua **ezagutzea**.

Ikasgelan truke-dinamika bat **garatzea**.

Diruaren ezagutzan **sakontzea** eta izan ditzakeen erabilera guztiak ikastea, beste truke-dinamika batzuk ezagutzeaz gain.

Dirua **desmitifikatu** eta izan ditzakeen erabilera guztiak ikastea.

Denbora banku bat **ezagutu** eta sortzea.

Dirua nola sortzen den eta nola desagertzen den jakiten **hastea**.

Bankuetan gordailutzen den diruarekin zer finantzatzan den eta ekintza horiek zer ondorio izan ditzaketan **jakitea**.

Moneta arruntaren eta moneta sozialaren arteko aldeak **ezagutzea** eta azken honen izateko arrazoia ulertzea.

Bankuen funtzionamendua eta funtzionamenduaren ondorioak ulertzeko edukiak **lantzea**.

Emakumeen eta finantzen arteko harremanaren ondorioak **aztertzea**.

Kaleratzeak zer diren eta hauen ondorioak **aztertzea**.

Oinarrizko gaitasunak

Ikasten ikasteko gaitasuna.

Matematikarako gaitasuna.

Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Edukiak

Gauzen baloreaz **jabetzea**. Sarrerak, gastuak, erabakiak, ezustekoak...

Pribilegiatuak eta pribilegiatu gabeko jendea. Nork hartzen ditu erabakiak? Gizonen eta emakumeen arteko aldeak. Herrialde aberats eta txiroak. **Ekonomia solidarioa**.

Trukea. Trukeak dituen beste baloreak. Truke-azoka.

Moneta, dirua, trukea, interesa eta lukurreria.

Denbora bankua. Azalpena eta praktika.

Diruaren historia, porrota eta "corralittoa". Moneta soziala.

Bankuak. Zertan inbertitzen du bankuak pertsonen dirua.

Bankuen **funtzionamenduaren eskema**. Ohiko bankua eta banku soziala.

Etxegabetzeen aurkako borroka.

Ekonomia feminista. Emakumeen eta finantzen arteko lotura.

3. Erabilera gida



Hemen aurkeztutako unitate didaktikoa lau blokek osatzen dute. Bloke bakoitza Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko maila jakinetara bideratuta dago:

1. blokea:

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila

“Gauzen balioa eta trukea”

1. **Saioa:** Zenbat balio dute gauzek?
2. **Saioa:** Kontuz kontsumitzen dudan moduarekin
3. **Saioa:** Trukatzeraz!

2. blokea: DBHko 1. eta 2. maila

“Diruaren funtzionamendua eta denbora bankua”

1. **Saioa:** Dirua, papera baino gehiago
2. **Saioa:** Ez soilik diruarekin
3. **Saioa:** Sortu zure denbora bankua

3. blokea: DBHko 3. eta 4. maila

“Dirua eta moneta soziala ezagutzen”

1. **Saioa:** Zer da dirua?
2. **Saioa:** Zer egiten du banku batek gure diruarekin?
Banka armatuaren adibidea
3. **Saioa:** Moneta sozialarekin jolasean

4. blokea:

Batxilergoko 1. eta 2. maila

“Ekonomia feminista eta etxegabetzeak”

1. **Saioa:** Ekonomia feminista
2. **Saioa:** Nola funtzionatzen dute bankuek?
Haien ekintzen ondorioak
3. **Saioa:** Etxegabetzeak jopuntuan

Bloke bakoitza hiru saioz osatuta dago, eta haietan lantzen dira finantza etikoekin lotutako edukiak, era teoriko eta praktikoan, xede dituzten ikasturteetara egokitutako irakurketak, bideoak, albisteak, dinamikak, jolasak eta abar konbinatuz.

Hemen aurkeztutako proposamena ez da itxia, DBHko saioak aplikatu daitezke Batxilergoan, eta Lehen Hezkuntzakoak DBHn, berdin-berdin, gaia interesgarria bada irakasleentzat, eta dinamikak eta saioak ikasleen profilarri eta ezagutzari egokitzen bazaizkie.

Saioetan jasota daude haiek garatzeko beharrezko azalpenak, baita bakoitzerako zenbatetsitako denbora, oro har ordubeteko ia izango dena. Saio batzuetarako material lagungarria dago, unitate didaktiko honen eranskinetan.


Ez da beharrezkoa ekonomiako irakaslea izatea jarraian aurkeztutako saioak emateko. Edukiei laguntzeko, azalpen eta dokumentazio gehigarria dago, beharrezkoa bada ere.

4. Saio blokeak ikasturteko-ziklo akademikoko



4.1. Lehen hezkuntza: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila

Gauzen balioa eta trukea



Saioen aurkezpena

Hiru saio hauetan ikasiko da zein den gauzen balioa, eta truke kontzeptua aurkeztuko da, jarraian proposatutako materiala oinarritzat hartuz.

1. Saioa: Zenbat balio dute gauzek?

Helburua



Egunerokoa diruak duen garrantziari balioa ematen ikastea. Batetik, pertsonak eta familiek beren ekonomiaren inguruan hartu beharreko erantzukizunaz eta erabakiez hausnartuko da, baita, bestetik, bizitzan diruak duen balio erlatiboaz ere.

Zenbatetsitako denbora



Ordu eta erdi.

Beharrezko baliabideak



4 pertsonako: papera, arkatza, borragoma eta inprimatzeko orriak (**I. eranskinean ageri dira**).

Saioaren garapena



Saioa aurkeztean, jolasa azaldu aurretik, beste bi saioei lotuta dagoela aipatuko da.

Jolasa zehatz-mehatz azalduta dago **I. eranskinean**. Hona hemen laburpena:

- Gela lauко taldetan banatuko da. Pertsona batek “banku” lanak egingo ditu, eta besteek elkarbizitza unitate bat irudikatuko dute, etxe bat. Talde bakoitzak beharrezko materiala izango du.
- Jolasaren lehen zatian (20 minutu inguru iraun beharko luke), laukitxo laukitxo egingo dute aurrera (bakoitzak urteko 2 hilabete irudikatzen ditu), urtea amaitu arte. Laukitxo bakoitzean dagokien txartela aterako dute lehenengo (bertan gastu edo diru sarrera gehigarriak azalduko dira, baita hartu beharreko erabaki ekonomiko bat ere); gero, txartel bat hartuko dute, ausaz (gastu eta/edo erabaki gehigarriak dakartzana). Idatzi egingo dituzte izandako gastu eta/edo diru sarrerak eta hartutako erabakiak.
- Jolasaren bigarren zatian, “Zoriontasun taula” banatuko zaie; bertan, zoriontasuna “puntuatuko” dute. Puntuazioa ez da erabakietako gastuen neurrikoa.
- Horren ondoren, jolasean ikusitakoaz eztabaidatu eta hausnartuko da.


Gehiago jakiteko



Itxieraren osagarri, **bideo** hau jartzea proposatzen da (minutu eta erdiko), beste ikuspegi bat izan dezaten gauzen balioaren inguruan (publizitatea da, baina azken segunduetan bakarrik sumatzen da).

Gomendatutako liburua: ¿Cuántas raíces de frambuesa necesito para ser feliz?

2. Saioa: Kontuz kontsumitzen dudan moduarekin



Saioaren garapena



2. Bigarren fasea: hausnarketa eta lankidetzako ikuspegiaren proposamena (30'). Guztiok bilduta aztertuko dugu zer gertatu den:

- Nora joan da gutxi batzuen aberastasuna?
- Zein ondorio izan dituzte batzuen ohiturek besteen errealitatean?
- Isilarazitakoen taldean, nortzuk jasan dituzte ondorio larrienak? Kasu batzuetan, ezberdintasunik ba al dago gizonen eta emakumeen artean?
- Gutako bakoitzak munduaren errealitatean duen rola aztertuko da, eta errealitate hori aldatzeko tokiko proposamenak aurkeztea sustatuko da.
- Esperientzia horren ondoren, "botea lortu" nahi al dugu?


Azkenik, txartelak itzultzea proposatuko dugu; azken finean, ohitura kontsumista eta arduragabeak bueltatzea, eta, beraz, jolasteari utzi behar izan dioten pertsonak jolasera itzultzea.

Gehiago jakiteko



Gida didaktiko osoa: **Ekonomia solidarioa: ekonomia eraldatzea geure mundua eraldatzeko.**

Oleatakorta ekonomia solidarioko abentura bat.



3. Saioa: Trukatzerak!

Helburua



Ikasgelan truke dinamika garatzea, beste dinamika ekonomiko batzuk ezagututa, araudi bat garatuta eta hori aplikatuta.

Zenbatetsitako denbora



Bi eskola saio, bata prestatzeko eta bestea egiteko.

Beharrezko baliabideak



Trukerako materiala.

Saioaren garapena



Bi saioak independenteak dira, eta, beraz, lehena egin daiteke bigarrena egin gabe.

1. saioa: Ikasgaia aurkeztuko da eskolan, adieraziz zer den trukea eta nola egiten den (adibide gisa jar daiteke [Dirurik Gabe Elkarte](#)).

Garapen horretan, galderak egingo ditugu lehen saioarekin lotuta, eta produktu bat trukatzeko sortutako beste balio batzuk aipatuko ditugu (adibidez, produktu batekin lortutako asebetetzea).

Araudi bat ere ezarriko da trukea egiteko, trukea egiteko modua, lekua eta trukerako arauak jasoko dituen.

2. saioa: Asmoa da gelak truke azokatxo bat antolatzea. Honako lan hauek ezarriko dira:

- Espazioa erabakitzea (gonbidapena egingo diegu azoka gelatik harago antolatzeke eta eskola guztian egiteko, gelaren gidaritzapean).
- Nork hartuko duen parte erabakiko da (izen-ematea), eta pertsona bakoitzarentzako postuak ezarriko dira (mahaiak, guneak).
- Bakoitzak trukatu nahi duen materiala eramango du.
- Azoka egitea besterik ez da falta!

Gehiago jakiteko



Trukerako gida deskargatu [hemen](#).


4.2. Bigarren hezkuntza: DBHko 1. eta 2. maila

Diruaren funtzionamendua eta denbora bankua



Saioen aurkezpena

Diruaz hitz egiten hastea nahi dugu, DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek erabiltzen duten eratik harago. Dirua zer den, nola erabiltzen den eta erabilera horrek dituen ondorioak ezagutarazi nahi ditugu. Sistema finantzarioaz ere hitz egingo dugu, labur, eta dirua ez beste modu ezberdin eta osagarri batzuk erakutsiko ditugu, adibidez, denbora bankuak.



1. Saioa: Dirua, papera baino gehiago

Helburua



Diruaren mitoa desagitea eta izan ditzakeen erabilera guztiak ikastea. Diruaren kontzeptuaren sarrera egitea.

Zenbatetsitako denbora



Ordubete.

Beharrezko baliabideak



Papera eta boligrafoa, kartoi meheak eta margoak.

Saioaren garapena



Saioa honela egituratuko dugu:

Gela lau lagun inguruko taldetan banatuko da.

Honako termino hauek emango zaizkie, eta esango zaie idazteko zer direla uste duten: moneta, dirua, trukatzea, interesa, lukurreria (20').

Gero, honako definizio hauek emango zaizkie (kasu honetan, Euskaltzainditik hartuak, moldatuta):

- Moneta: kontu-unitate gisa, balio-neurri gisa eta ordaintzeko modu gisa onartutako tresna.
- Dirua: Salgaien prezioa adierazteko erabiltzen den unitatea, salerosketa eta truketarako erabiltzen dena.
- Trukatzea: Gauza bat eman eta haren ordez beste bat hartzea.
- Interesa: Diru kapital mailegatuak epe jakin batean ematen duen etekina edo irabazia.
- Lukurreria: Maileguz ematen den dirutik ateratzen den gehiegizko interesa.

Saioaren garapena



Definizioen ondoren, horma irudi bat egiteko eskatuko zaie, formatu librekoa; honako galdera hauei erantzuteko asmoz: (20').

- Ezagutzen al zenituzten kontzeptu hauek?
- Espero zenutena al dira?
- Uste duzue dirua bestela erabil daitekeela?

Talde bakoitzak horma irudia gelari erakutsiko dio, eta bere usteak eta iritziak partekatuko ditu (10').


Gehiago jakiteko



Diruaren inguruko ezagutza sakontzeko:

Bideoa: **Banking 101**, "Positive Money" (azpitoluak gaztelaniaz).

Gomendatutako liburua: "Yo de mayor quiero ser e-co-no-mis-ta".



2. Saioa: Ez soilik diruarekin

Helburua



Diruaren ezagutza sakontzea, izan ditzakeen erabilera guztiak ikastea, eta beste truke dinamika batzuk ezagutzea.

Zenbatetsitako denbora



Ordubete eta ordu eta erdi artean.

Beharrezko baliabideak



Papera, boligrafoa eta kartoi mehea.

Saio honen asmoa da produktuak eta zerbitzuak trukatzeko beste modu baten inguruko kontzeptuak aurkeztea, beste truke era batzuk ezagutzeko. Horretarako, denbora banku bat zer den azalduko dugu, denbora balioa emateko beste era baten moduan aurkeztuz.

Helburua da ikasleekin saio praktikoa egitea, honako egitura honekin:

- Ikasle bakoitzak papera eta boligrafoa hartuko du, eta dituen edo eskain ditzakeen produktuak eta/edo zerbitzuak idatziko ditu. Bakoitza moztuko du, eta ikasleak bere izena idatziko du bertan:
 - Produktuen adibideak: liburu bat, jostailu bat, elastiko bat...
 - Zerbitzuen adibideak: bizikleta bat konpontzea, txirikordak egitea, eskolako laguntza, musika tresna bat jotzen irakastea eta abar.
- Gero, ikasgelan bi kartoi mehe jarriko dira: "Produktuak" eta "Zerbitzuak". Bakoitzak bertan itsatsiko ditu bete dituen papertxoak.
- Paper guztiak itsatsi ondoren, egin nahi dugunaren adibide bat ikusiko dugu:
 - Bakoitzak interesgarriak iruditzen zaizkion zenbait gauza bilatuko ditu, bai produktuak bai zerbitzuak, eta paper batean idatziko du zeintzuk diren eta nork eskaintzen dituen.
 - Gero, saiatuko gara ikasleek bikoteak sortzen, batak besteari interesgarri iruditu zaion zerbait eskaintzen diotenak.
 - Bost minutu emango zaizkie trukea egiteko, eta definitzeko nola egin duten. Garrantzitsua da truke horretara heltzeko modua islatzea.
- Truke hori errepikatu egingo dugu, nahi bestetan, daukagun denboraren arabera.

Saioaren garapena



Saioa amaitzeko, tarte bat hartuko dugu proposatutako truke horiek idazteko eta guztiarekin partekatzeko, horiek balioesteko (bidezkoak, bidegabeak eta abar), etorkizunean araudi bat egiteko oinarria ezartzeko asmoz.

Truke horiek mugak dituzte, denbora bankuei esker desagertzen direnak. Hori hurrengo saioan azalduko da.

Gehiago jakiteko



Truke kontzeptuaren ezagutza sakontzeko:

Truke sarea:

<http://redintercambio.wikitoki.org/>

3. Saioa: Sortu zure denbora bankua

Helburua



Denbora bankuak ezagutzea eta sortzea.

Zenbatetsitako denbora



Eskola saio bat edo bi.

Beharrezko baliabideak



Papera eta boligrafoa.

Denbora banku bat abian jarriko da. 2. saioan ikasitakoarekin abiaraziko da; bertan eskaini daitezkeen zerbitzuen adibideak jarri baikenituen.

Denbora banku baten oinarria da pertsona bati, beste baten zerbitzuak jasotzean, denbora jakin bat “kenduko” zaiola, edo “zorretan” geldituko, eta zerbitzua eman duenari “gehitu” egingo zaiola, edo “metatu”. Horretarako, denbora horiek kontrolatu egin behar dira. Beraz, trukeak ez dira bi pertsona horietara mugatuta egongo.

Denbora banku bat antolatzeko, lehenik eta behin parte-hartzaileak nortzuk diren jasoko da (izen-ematea), eta zein zerbitzu eskaintzen duten.

Pertsonen eta zerbitzuen zerrenda ezaguna izango da parte-hartzaileentzat (adibidez, kartel bat jarriko da gelan).

Oinarrizko arauak ezarriko eta azalduko dira (**informazio gehiago**):

- Denbora biribildu egingo da (15', 30' eta abar).
- Gehienez ere denbora kantitate jakin bat metatu ahalko da, bai gora bai behera. Adibidez, bi ordu asko jota.
- Zerbitzu zentzuzkoak izan beharko dira. Irakasleak onartu beharko ditu.
- Materialak behar badira, zerbitzua jasotzen duenak eman beharko ditu.
- Ez da diru trukerik egongo.
- Bakoitzaren denboraren erregistro bat egingo da, eta zerbitzuak idatzi egingo dira (baita nork eman duen ere). Ona da irakasleak egiaztatzea denbora erregistratu egiten dela.
- Erregistro hori publikoa izango da, ezaguna guztientzat, abusurik egon ez dadin (zorra metatzea, adibidez). Nola egin erabakiko da: kartel batez, online eta abar. Horretarako arduradunak ezar daitezke (irakaslearen laguntzaz).
- Erabaki behar da erregistroa zenbatean behin eguneratuko den (astean behin, adibidez).

Saioaren garapena



Gehiago jakiteko



Zer dira denbora bankuak?

<http://www.bdtonline.org/>

Adibideak:

Barakaldoko denbora bankua

Otxarkoagako denbora bankua

4.3. Bigarren hezkuntza: DBHko 3. eta 4. maila

Dirua eta moneta soziala ezagutzen



Saioen aurkezpena

Txiki-txikitatik dugu harremana diruarekin: ukitu egiten dugu, haren inguruan hitz egindakoa entzuten dugu, segurtasun kutxa handietan gordeta irudikatzen dugu. Gero ikasten dugu, ordea, txikitan ezagututako diru hori zirkulazioan dabilenaren zati txikitxo bat besterik ez dela. Dirua ez da dirudien bezain «materiala». Non dago benetan dirua? Desagertu egin daiteke, Argentinan *corralito*arekin gertatu zen bezala, edo beti izango da geurea?

Proposatzen da hiru saiotan azaltzea zer den dirua, nola erabiltzen den, zein izan den haren bilakaera eta zein alternatiba ari deiren sortzen.

1. Saioa: Zer da dirua?

Helburua



Ezagutzen hasia nola sortzen den dirua eta nola desagertzen den (igorpene eta zirkulazioa), eta zein den diruaren "usaina". Era praktikoan ikustea haren mugimenduari lotu dakizkikeen bidegabekeriak, baita sortzen duen desberdinkeria ere.

Zenbatetsitako denbora



Ordubete.

Beharrezko baliabideak



Proiektorea, papera, boligrafoa.

Saioaren garapena



Saioa hasteko, **diruaren historiari** buruzko bideo hau ikusiko dugu (6:35).

Bideoa ikusi ondoren, ikasleekin eztabaidatuko dugu:

Zein galdera dituzue?

Jendearen diru guztia inprimatuta al dago? Zure ustez, diru horren zein ehuneko dago txanpon edo billete moduan?

a) % 82 b) % 51 c) % 26 d) % 7

Erantzun zuzena d) da, % 7, gutxi gorabehera.

Saioaren garapena



Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, saioaren bigarren zatira igaroko gara.

Hausnarketarako galdera: Zer gertatuko litzateke egun batean bankutik dirurik atera ezin izango balitz? Uste duzue posible dela?

Galdetu ondoren, Argentinako kasuari buruzko bideoak jarriko ditugu: "Corralittoa" (bideo guztiak bi minututik beherakoak dira).

- Argentinaren porrota eta "corralittoa" 1. bideoa (1:30).
- Zer da corralittoa? 2. bideoa (1:15).

Bideoen ondoren: Uste duzue hori gaur egun gerta daitekeela? Zer egingo lukete zuen familiek?

Hurrengo saioetarako alternatibak planteatuko dira. Horregatik, saioaren amaieran moneta sozialaren kontzeptua aipa dezakegu, alternatiba baten adibidea emateko (hirugarren saioan azalduko da).


Gehiago jakiteko




Zure dirua eta zu (Fiare) → Dirua atala (1- 11 orrialdeak).



2. Saioa: Zer egiten du banku batek gure diruarekin? Banka armatuaren adibidea

Helburua  Jakitea zer finantzatzen den bankuetan jarritako diruarekin eta zein ondorio izan ditzaketen ekintza horiek.


Zenbatetsitako denbora  Ordubete.

Beharrezko baliabideak  Papera, boligrafoa eta proiektorea.

Gela 4 pertsonako taldetan banatuko da.

Bankuak dira maileguan ematen du, bezeroek eta enpresek jartzen duten diruari esker. Ikasleentzako galdera: *Zer egiten du bankuak zure dirua beste gauza batzuetan inbertitzeko?*

- A. Jabeak sinatu beharreko baimen jakin bat eskatzen du. Baimen horiek urtebete eta bost urte arteko iraupena izan ohi dute.
- B. Kontua irekitzean, sinatutako paperetan zehazten da zein gauzatan inbertituko duen bankuak eta nola mailegatzten duen.
- C. Bezeroen dirua duenez, berea ez bada ere, likidezia lortzen du, eta nahi duen moduan erabil dezake ia, legeak errespetatuz. Nahi duena egiten du, bezeroari iritzirik eskatu gabe.

Saioaren garapena  Talde bakoitzari 5 minutu emango dizkiogu, iritzia eman dezan, eztabaida dezan eta erantzun zuzena asmatzen saia dadin. Errealitatera gehien hurbiltzen den erantzuna C da.

Gero bateratze lana egingo dugu, talde bakoitzaren iritzia partekatzeko.


Honako bideo hauek ikusten jarraituko dugu:

- **Banka armatuari buruzko bideoa (2:10).**






Eztabaidarako galdera hauek botako ditugu:

- Uste duzue hau gertatzen dela bankuetan?
- Nola funtzionatu beharko luke banku batek?
- Ba al dago bankurik zure dirua nora doan erabaki dezakezunik? Ba al dago banku etikorik?

Uste dugu oso gomendagarria dela saioa amaitzeko **banka armatuaren rankingari** buruzko bideo hau jartzea (2:57), gaiari buruzko Estatuko datuen informazio zehatza ematen baitu.

Gehiago jakiteko  Banka armatuari buruzko webgunea eta aplikazioa.
Dirua eta zu (Fiare) → Dirua atala (12- 14 orrialdeak).

3. Saioa: Moneta sozialarekin jolasean

Helburua		Moneta arruntaren eta moneta sozialaren ezberdintasunak ezagutzea, eta azkenaren izateko arrazoia ulertzea.
Zenbatetsitako denbora		Ordubete (Jolasa azaltzeko 5 minutu + 30 minutuko joko erronda + tokiko moneta soziala aurkezteko 5 minutu + eztabaidako 10 minutu + ondorioetako 5 minutu).
Beharrezko baliabideak		200 billete (inprimatu egin behar dira, 100 billete talde bakoitzeko). Talde bakoitzeko "saski komun" moduko ontzi bat (materiala gordetzeko kutxa izan daiteke). Panel bat, talde bakoitzaren rolekin. Ikus II. eranskina.
Saioaren garapena		Ikasleek rola izango dituzte (dentista, kontsumitzailea, saltokia, nekazaria, familia) eta salerosketa txandak egingo dituzte haien artean, dirua komunitatean nola gelditzen den edo nola irteten den idatziz eta eztabaidatuz. Ikusiko da euroa bezalako moneta ohikoak erabiltzean ekonomian desorekak sortuko dira: zorduntzea, deslokalizazioa eta likidezia falta, eta moneta sozialarekin, aldiz, ez dela horrelako eragin negatiborik egongo. Dinamika II. ERANSKINean azaldu da.
Gehiago jakiteko		Ekhilur proiektuaren webgunea. Lotutako albistea: Bilbao eta Hernani, hiri pilotuak Bizum arduratsu baterako. Gomendatutako bideoak: 1. "Documentos TV" (ordubete). Moneta sozialak. Edo bideo laburragoak, honakoak bezalakoak: 2. Genoveva Lopezen (Madrilgo Merkatu Soziala) azalpen kontzeptual bat Zer dira moneta sozialak?, El Salmón Contracorrienteko Genoveva Lópezen eskutik. 3. Komunitate esperientzia bat Sevillan (El Pumarejo): Moneta sozialak. 4. Argentinako hausnarketa bat moneta sozialei eta euroaren amaierari buruz: Moneta sozialak Espainian, euroaren amaiera?

4.4. Batxilergoa: Batxilergoko 1. eta 2. maila

Ekonomia feminista eta etxegabetze



Saioen aurkezpena

Badakigu gehienbat bankuek kudeatzen eta gordetzen dutela dirua, baina ez dakigu egiaz nola funtzionatzen duten. 2008an sistema kapitalistaren zati baten porrotarekin hasitako krisiaren ondorioz, haietako askok behea jo zuten (eta gero diru publikoz erreskatatu zituzten), eta herritarrek, orduetik, horren ondorioak jasan behar izan dituzte, esaterako, etxegabetzeen gorakada. Estatuan etxegabetze gehien 2014an egon zen, baina 2020an oraindik hilean mila etxegabetze baino gehiago egon ziren (pandemiak sortutako alarma egoerari lotutako etxegabetzeen aurkako neurriak gorabehera).

Pobreziak eta desberdinkeria sozial/ekonomiko/kulturalak gogorren jotzen dituen kolektiboetako bat da emakumeena, gainera sistema finantzario tradizionaletik kanpo gelditzen baitira, baztertuta. Nazio Batuen datuen arabera, munduko pertsona pobreenen % 70 emakumeak dira. Lan eta soldata prekarizatuagoak, lan egonkor bat lortzeko zailtasunak eta haiekin dauden aurreiritziek mugatu egiten dute haien askatasun finantzarioa, mundu osoan. Hori dela eta, emakumeen ahalduntze ekonomikoa funtsezko tresna da kohesio soziala hobetzeko eta komunitateetako pobrezia murrizteko, eta finantza etikoak oso tresna erabilgarria izan daitezke hori erdiesteko.

Proposatzen da hiru saioen bitartez gertutik ezagutzea nola funtzionatzen duten bankuek eta pertsonak haren funtzionamenduaren aurrean duten zaurgarritasuna, genero desberdinkeria azpimarratuz. 2008ko krisiaren ondorioz sortutako alternatibetako batzuk aurkezteaz gain, etxegabetze bat zer den ezagutuko da, baita munduan arazo hori azaleratu ondoren sortutako mugimendu soziala ere.

1. Saioa: Ekonomia feminista

Helburua



Ekonomiari ikuspegi feministatik egindako ekarpenak ulertzeko edukiak lantzea.

Zenbatetsitako denbora



Ordubete inguru.

Beharrezko baliabideak



Eranskin eskuragarriak, papera eta boligrafoa, Interneterako sarbidea duen gailu mugikorra edo ordenagailua.



Saioa hasiko dugu subjektu maskulinoari eta femeninoari esleitutako rolen inguruan gizartean gailentzen diren estereotipoen dinamikarekin. Bertan, zenbait baieztapen emango zaizkie, eta horiek subjektu maskulinoarekin edo femeninoarekin lotu beharko dituzte (**III. ERANSKINA**).

Horren helburua da lehen dinamika horrekin dagoeneko lotzea kontuan hartzen ez den ekonomiaren zati bat, hau da, zainketena. Generoen araberako lotura horren ondoren, hausnartu egingo dugu, eta eztabaida bat hasiko. Horretarako lagungarri suerta daitezke honako galdera hauek:

- Zergatik gertatzen da hori errealitatean?
- Konturatzen zineten munduan emakumeak gehienbat zainketen lanetan aritu direla?
- Uste duzue zainketa horiek egiaz direla beharrezkoak egunerokoak funtziona dezan?
- Zein da gure lurraldean adinekoak zaintzen dituzten emakumeen jatorria?

Proposatzen da honako bideo hau ikustea, ulertzeko zeintzuk diren ekonomia feministaren oinarriak, eta zein eredu defendatzen duen:

Ekonomia feminista- Cristina Carrasco, [bideorako esteka](#).

(Bideoaren bi zati hauek gomendatzen ditugu: hasieratik 03:51ra eta 08:00tik 09:49ra).

Ikasleei aipatzekoak: Bideoa 2013koa da. Uste duzue egoera asko aldatu dela orduetik?

Azter ditzagun denboraren erabileraren azken inkestean datu hauek, egiaztatzeko bilakaerarik egon den ala ez. Inkesta hauek 3 urtean behin egiten dira, eta EAEko biztanleek denbora zertan ematen dugun aztertzen dute. Zainketekin lotuen dauden zereginak neurtzea da haien helburu nagusia.

- Ikus grafiko hau: [Batez besteko egun batean etxeari eta familiari emandako denbora. EAE](#).
- [Ikus txosten osoa \(aukerakoa\)](#).

(Gaiari buruzko datu guztiak topa daitezke [EUSTATen webgunean](#)).

Saioa amaitzeko, ikasleei proposatuko zaie denboraren erabileraren inkesta bat egitea, balioa emateko bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren ezkutuan utzitako lan guztiak, eta, gainera, proposatuko da #ikusezinaikusgai galdetegia egitea, 10 galderakoa, genero ekitatearen aurrerakuntzen inguruan hausnartzekoa, denborari, desberdinkeriarri eta erantzunkidetasunari buruzko datu bitxiak dituena.

Denboraren erabilerari buruzko inkesta egin.

10 galderako galdetegia egin.

Amaitzeko, saiotik ateratako ondorioak aztertuko dira ikasleekin. Ondorio posible batzuk:

- Ekonomia produktiboa zainketen ekonomiak sostengatzen du.
- Pertsona guztiek dugu elkarrekiko mendekotasuna, bereziki haurtzaroan, zahartzaroan eta gaixo egon bitartean.

Gehiago jakiteko



Saioan ikusitakoarekin lotutako informazio gehiago eskuratzeko:

- Mugarik gabeko Ekonomisten zaintzen ekonomiaren maleta.
- REASen Bizitzaren Jasangarritasuna (13-25 or.): Ekonomia solidarioa izango da feminista bada. Ekonomia Feministak Ekonomia Solidarioaren eraikuntzari egindako ekarpenak.
- Finantza etikoak, emakumeak ahalduentzeko tresna.
- STEILASek gaiarekin lotuta egindako proposamen didaktikoak.
- Euskal Demokrazia Patriarkala.
- Hiruki gatazkatsua: etxeko eta zaintza lanak, enplegua eta parte hartze soziopolitikoak.

2. Saioa: Nola funtzionatzen dute bankuek? Haien ekintzen ondorioak

Helburua



Bankuetako diruen fluxuak ulertzeko edukiak landu, eta haien funtzionamenduaren ondorioetako bat: etxegabetzeak.

Zenbatetsitako denbora



Ordubete.

Beharrezko baliabideak



Papera eta boligrafoa apunteak hartzeko, eta artikulua erantsia, irakurtzeko.

Saioaren garapena



Hamar minutuko bideo bat ikusiko dugu: “**Bankuek nola sortzen duten dirua (eta boterea)**” (9:44); bertan, Juan Torres Lópezek azaltzen du bankuen helburua dela dirua sortzea, eta horrela hobeto ulertuko dugu diruaren fluxua.

Azalpen hau kontsulta daiteke, bideoa hobeto ulertzeko.

Bideoa ikusi ondoren honako galdera hauek egingo ditugu:

- Funtzionamenduari buruzko zerk harritu zaitu?
- Uste duzu funtzionamendu horrek jendeari nolabait kalte egiten diola?
- Ezagutzen al duzu mailegari, hipotekei, kredituei eta abarri aurre egin ezin izateagatik herritarrek jasandako ondorioren bat?

Krisiaren ondorio lazarrietako bat etxegabetze kopurua izan da, baina bankuen funtzionamenduek eragindako beste ondorio ugari dago. Beste bat, banka armatuarena, unitate didaktiko honen DBHko 3. eta 4. mailako blokearen 2. saioan lantzen da.

Hipotekak dira Estatu osoan emandako mailegu garrantzitsuenak, eta ondorio latzak ekarri dituzte (batez ere 2008ko krisiaren ondoren), sarri ikusgai egin ez direnak, eta interesgarria da horietako batzuk aztertu ahal izatea, eta horien inguruan hausnartzea.

Saioaren garapena



Proposatzen da gogoetaren ondoren etxegabeteak lantzea, bankuen kudeaketaren zuzeneko ondorioetako baten moduan.

Proposatzen dugu **SÍ SE PUEDE, siete días en la PAH Barcelona** dokumentalaren lehen **11 minutuak** ikustea (dokumentala 50 minutukoa da; ikasgelatik kanpo ikusi nahi bada, ikasleei proposa dakieke, eta 3. saioa baino lehen hitz egin daiteke hartaz):

- Ezagutzen al zenuten arazo hau? Ba al zenekiten 2008ko krisiaren ondorio handienetako bat izan dela?
- Zuen hurbileko kasurik ezagutzen al duzue?
- Zuen ustez, zer egin beharko luke gobernuak?
- Zuen ustez, nortzuek sufritzen dute gehien bankuen funtzionatzeko modu hutsagatik?
- Zerk gailendu behar du, zor bat kobratzeko eskubideak edo etxebizitzarako eskubideak?
- Zergatik da hain ohikoa AEBetan ordainean ematea, eta Espainian, aldiz, ia ez da existitzen? Nori egiten dio on? Zein ondorio du? Bidezkoa al da? [Ordainean ematea: ondasun bat ematea ordaintzeke dagoen zor bat kitatzearen truke].

Proposatzen da eztabaida irekitzea eta ikaslek nahi dutena adieraztea. Zer gertatzen da hipoteka ordaintzen ez baduzu?

Gehiago jakiteko



Finantzaz Haratagoren **FINANTZA ETIKOEN ALDEKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINA:**

I. Sistema ekonomikoa (2:08)

II. Finantza etikoen historia (1:58)

Banka armatuaren webguneko informazioa, Espainian banka armatuan esku hartzen duten bankuei eta haien zifrei buruzkoa.






III. Lotutako bideoa: **Nola inbertitzen dute bankuek... etika gutxiko helburuetan?** (2:39) Banka Armatuaren bideoa, ulertzeko bankuek non inbertitzen duten diru hori.

“Zer egiten dute bankuek diruarekin?” atala, eta diruaren funtzionamendua hobeto ulertzea **Zure dirua eta zu (Fiare)** (19-24 orrialdeak).

Artikulu honek kronologikoki kontatzen ditu PAH Bartzelonaren borrokako 10 urteak, prozesua eta bidean lortutakoa ezagutzeko.



3. Saioa: Etxegabetzeak jopuntuan

Helburua		Etxegabetzeen arazoa sakontzea, bereziki azpimarratuz emakumeen zaurgarritasuna, eta mundu mailako arazo bat dela.
Zenbatetsitako denbora		Ordubete eta bi ordu artean, gaien zenbat sakondu nahi denaren arabera.
Beharrezko baliabideak		Proiektorea eta ordenagailua. Papera eta boligrafoa. Inprimatutakoak: IV. eranskina eta saioaren garapenean deskribatutako Amnistia Internazionalaren kasuak (58-63. orrialdeak).
Saioaren garapena		Proposatzen da IV. ERANSKIN eko testua irakurtzea, etxebizitza duina lortzea funtsezko eskubidea izatearen kontzientzia sortzeko. Amnistia Internazionalaren “ Errespetatu nire eskubideak, errespetatu nire duintasuna. 2. modulua – etxebizitza giza eskubide bat da ” hezkuntza materialeko esteka honetan 3 kasu ageri dira, munduko leku ezberdinetan etxegabetzea jasan duten 3 emakumerenak, arazoa mundu osokoa dela ikusteko. Proposatzen dugu gelan hiruzpalau ikasleko taldetan lan egitea. Taldeetako bakoitzak kasuetako batzuk irakurriko ditu, eta horiek garatuko. Dokumentu horretan, 58. orrialdetik 63.era gida bat dago, kasu horiek landu ahal izateko (proposamen hau egokitu egin daiteke ikasgelan dagoen denborara); 58. orrialdetik 60.era saioan lantzeko iradokizunak daude, eta hurrengo 3 orrialdeetako bakoitza kasu bat da (61-63). Saioa amaitzeko, ikasleei eskatuko zaie inguruan etxegabetzeen kasuak eta izan dituzten ondorioak bilatzeko. Amaia Egañaren etxegabetzearen kasu paradigmaticoa erakuts daiteke, mugarri bat izan baitzen gure inguru hurbilenean gai horren inguruko kontzientziaioan. Amaitzeko, nabarmendu dezakegu pobreziak emakume aurpegia duela, eta, horretarako, 5 minutuko audio hau entzun dezakegu.
Gehiago jakiteko		Ariketa osagarri gisa, lurraldeko Etxegabetzeak STOP plataformako norbait ekar daiteke, gaiarekin lotutako hitzaldi bat emateko. Berri Otxoak . Lotutako artikulua: https://www.laopiniondemurcia.es/nacional/2020/01/28/espana-supera-millon-desahucios-2008/1086584.html https://www.eldiario.es/norte/euskadi/desaahucios-personas-viven-alquiler_0_1004050371.html https://es.wikipedia.org/wiki/Plataforma_de_Afectados_por_la_Hipoteca

5. Beste baliabide batzuk



Jarraian, unitate didaktikoan erabilitako baliabide garrantzitsuenak jarri dira eskuragarri:

A. Gida didaktikoak

I. **Ekonomia solidarioa:** ekonomia eraldatzea geure mundua eraldatzeko. REAS Euskadi.

Baliabiderako esteka: [euskara](#)

II. **Zure dirua eta zu:** dirua zer den eta gure gizartean nola dabilen jakiteko gida laburra. Fiare.

Baliabiderako esteka: [gazteleraz](#)

b. Unitate didaktikoan aipatutako beste baliabide batzuk hemen topatuko dituzue: **Finantza Etiko eta Solidarioen Heziketaren Aldeko Sarea**

Finantza Etiko eta Solidarioen Heziketaren Aldeko Sarean hainbat pertsona, erakunde eta plataforma biltzen dira, hezkuntza ekonomiko kritikoa eta finantza etiko eta solidarioak sustatu nahi dituztenak pertsonak eta planeta erdigunean jartzen duen ekonomiaren motor gisa.

c. Finantza etikoetako erakundeen adibideak

Estatuan finantza etikoetako erreferentziazko hainbat erakunde daude. Honela sailka daitezke:

I. **Banka etikoa:** banka horren jarduerak gardentasun eta demokrazia printzipioei jarraitzen diete. Gizartearen eta ingurumenaren aldeko irizpideak hartzen ditu kontuan inbertsioak aukeratzean, irizpide hertsiki finantzarioez gain. Ekonomia sozialaren sistema indartzen saiatzen da, eta, aldi berean, eskusio sozial eta finantzarioaren aurka borrokatzen du. Adibideak:

- [Fiare Banka Etikoa](#)
- [Triodos Bank](#)

II. **Kreditu etikoko kooperatibak:** moneta erakundeak dira, pertsona fisikoen kapitala biltzen dutenak (oro har, aurrezkiak). Jasotako kapital hori bazkideek aukeratutako proiektu sozialak finantzatzeko erabiltzen da, eta finantzatzutako proiektuak Hegoaldean zein Iparraldean egon daitezke. Adibideak:

- [Koop57EH](#)
- [Oikocredit Euskadi](#)

III. **Aseguru etikoak:** aseguru tresna sozial gisa ulertzen dute, eta aseguru etikoaren balioak aldarrikatzen dituzte. Adibideak:

- [Nortlan](#)
- [Caes](#)

d. Txostenak eta ikerketak

I. Finantza etikoei buruz gehiago jakiteko, kontsultatu argitaratutako azken txostena: "**FINANTZA ETIKO ETA JASANGARRIAK EUROPAN**".

II. Ikerketa: "**Batxilergoko Ekonomia Eskuliburuaren Kritika**".

6. Eranskinak

- I. Eranskina. 1. Unitate didaktikoaren 1. saioko jolasa
- II. Eranskina. Moneta soziala (tokikoa) eta diruaren zirkulazioa
- III. Eranskina. Gizartean gailentzen diren estereotipoen dinamika
- IV. Eranskina. Bizitza duinax

I. Eranskina.

1. Unitate didaktikoaren 1. saioko jolasa

Helburua

Eguneroko bizitzan diruak duen garrantzia baloratzea. Alde batetik, pertsonak eta familiek beraien ekonomiarekin hartu behar dituzten ardura eta erabakiez hausnartzea eta, bestetik, diruak bizitzan duen balio erlatiboaz.

Behar den materiala

Talde bakoitzak bere Jolasteko taula, Txartelak (“Bi hilabeteko gertaerak” eta “Zorizko gertaerak”), “Hasierako txartela” eta “Taldeko orria” behar ditu, baita arkatza, borragoma eta orritxo bat ere, eragiketarako egiteko.

Jolasa antolatu

Lauzpabost jokalariko taldeak osatuko dira. Talde bakoitzean jokalaria bat **“Banka”** izango da eta beste jokalariek **“Etxea”** osatuko dute.

Talde bakoitzak bere jolasteko taularen gainean jarriko ditu ahoz behera “Bi hilabeteko gertaeren” txartelak (ordenatuta) eta “Zorizko gertaerak” (besteen artean nahasita). Horrez gain, “Taldeko orria”, arkatza eta kontuak egiteko orritxo bat beharko dute.

Ikasleei nola jolasten den azalduko zaie. Hala ere, gomendagarria da ikasleei **ez aipatzea zein den jolasaren benetako helburua amaiera arte** eta bakarrik jakinaraztea diruarekin arduratsuak izan behar dutela; hori bukaerako eztabaidarako lagungarria izan daiteke.

Nola jolastu

Etxean bi heldu egongo dira eta hainbat seme-alaba (zehaztu gabe), haur edo gazte. Bi helduak bi aita, bi ama, aita eta ama, aita eta amama, ama eta aitaita, 2 pisukide eta abar izan daitezke (jolasa errazteko bi heldu jarriko ditugu, baina moldatu daiteke beste egoeretara).

Hasierako txartelean azaltzen zaie ikasleei zenbat diru daukaten hasieran, eta hilabetean normalean zenbat diru lortzen duten gastatzeko (ohiko diru sarreren eta ohiko gastuen arteko aldea jadanik kalkulatuta dago).

Lauki bakoitzak bi hilabeteko epea adierazten du. Hurrengo laukira pasatzen garen bakoitzean **bi txartel** atera behar dira, alde batetik, **“Bi hilabeteko gertaera”**ren txartel bat, eta bestetik **“Zorizko gertaera”**ren txartel bat (jolasa amaitzean azken horietako batzuk soberan egongo dira, ez baitaude 6 bakarrik).

Txartelak “banka” den jokalaria irakurriko ditu. Bertan gastuak edo diru sarrerak aipatuko dira eta baita hartu beharreko **erabakiak** ere. “Etxe”ko kideek hartu beharko dituzte erabakiak eta horien arabera gastu batzuk egongo dira.

Hurrengo laukira pasatu baino lehen, familiek berain **“Taldeko orria”**n apuntatuko dute **zenbat dirurekin** bukatu duten bi hilabete hauetan eta **hartu dituzten erabakiak** (zorizko gertaeraren txartelaren letra ere apuntatuz) zeintzuk diren.

Azaro-abenduko laukiko gertaeren eta talde orriaren kontuen ostean, maisu/maistrak talde bakoitzari “Poztasun taula” emango die beraien **poztasuna “neurtzeko”**. Lehen aipatu bezala, gomendagarria da ikasleek hori ez jakitea.

Hautazko bi arau

Hurrengo bi arauak moldatu egin daitezke jolasaren zailtasuna handitzeko edo txikitzeko. Hautazkoak dira.

Alde batetik, gerta daiteke “Zorizko gertaeren” erabaki batzuetan, “etxeak” ez jakitea zenbatekoa den erabaki bakoitzaren kostua, eta erabakia hartu ondoren ezagutzea. “Banka” den jokalaria informazio hori edukiko du.

Bestetik, etxea dirurik gabe gelditzea ere gerta daiteke; orduan, maisu-maistrak “banka” jokalaria lagunduko dio. Hori gertatzean, etxeari **“mailegua”** eman ahalko zaio. Hori hainbat modutan egin ahal izango da; adibidez, 1.000 euroko mailegua eman ahal izango da, baina hurrengo laukian 1.100 € itzuli (gastua, beraz) beharko dira. Gehieneko kantitate bat ere ezarri daiteke: adibidez, jolasean zehar 3.000 € utzi ahal izango dizkio gehienek bankak etxeari.

Poztasuna “neurту”

“Urtea” bukatu ondoren garrantzitsuena etxeak daukaten dirua ez da izango, hartutako erabakiak eta poztasuna baizik. Badakigu ezin dela poztasuna neurtu, baina modu sinbolikoan hori egingo dugu horren ostean eztabaida sortzeko.

“Poztasun taula” moldatu egin daiteke, txartelak bezala. Ikusiko denez, poztasuna ez da gastatutako diruarekiko proportzionala.

Talde bakoitzak “poztasun taulan” oinarrituz “poztasun” puntuak lortuko ditu. Talde/etxe bakoitzak hartutako erabakien arabera puntuazio ezberdina lortuko du.

Ikusi 39. orrialdea.

Eztabaida

Azkenik, poztasuna “neurту” ondoren, **eztabaida** sortuko da, horren inguruan **gogoeta** bat egiteko. Hainbat galdera egin daitezke, esaterako:

- Garrantzitsua al da dirua?
- Garrantzitsuena al da dirua bizitzan?
- Poztasuna ematen diguten gauza guztiek kostu ekonomikoak dakartzate?
- Arduratsuak izan behar gara diruarekin?
- Gauza batean gero eta diru gehiago gastatu, gero eta hobeto sentituko gara?

Jolasteko Taula

Ikusi 33. orrialdea.

Taldearen orria

Ikusi 34. orrialdea.

Hasierako txartela

Ikusi 34. orrialdea.

Talde bakoitzak, “etxe” bakoitzak, hasierako txartel bat edukiko du.

Funtsean, jakin behar dena bi gauza dira:

- Etxea 1.300 euroekin hasten da.
- Bi hilabete behin, jolas taularen lauki bakoitzean, 1.200 € gehiago izango dituzte, baina baita gastu gehiago ere.

Txartelean beste datuak bakarrik dira egoera hori justifikatzeko eta ikusteko zein izan daitekeen etxe baten diru mugimenduen egoera bat.

Jolas taularen laukien txartelak

Ikusi 35. orrialdea.

Lauki bakoitzak BI HILABETE adierazten ditu.

Zorizko gertaeren txartelak


Ikusi 36. orrialdea.

Jolas taularen lauki bakoitzean bat hartzen da, zoriz aukeratua, laukiari (bi hilabete horiei) dagokion txartela atera eta txartelari dagokion erabakia hartu ondoren. Txartel hauek taldeko “banka” jokalaria irakurriko ditu.

BI HILABETEKO
CERTAERAK

ZORIZKO CERTAERAK

Hezkuntza finantzario
kritiko eta etikoa
gizartea eraldatzeko



Taldearen orria

Laukia	Bi hilabeteak bukatzean daukagun dirua	Hartutako erabakiak	
		Laukiaren txartela	Zorizko txartela
Urtea hastean	1.300 €		
Urtarrila-otsaila			
Martxoa-apirila			
Maiatza-ekaina			
Uztaila-abuztua			
Iraila-urria			
Azaroa-abendua			



Hasierako txartela

Hasierako txartela	
<p>Etxeak bankuan hasieran, urtea hastean, 1.300 € ditu.</p>	
<p>Bi hilabete behin, jolasteko taularen lauki bakoitzean, etxeak 1.200 € lortzen ditu gastatzeko (etxearen diru sarrerei gutxieneko gastuak kenduz).</p> <p>Baina gastu gehiago egongo dira eta etxeak erabakiak hartu beharko ditu.</p>	
<p>Bi hilabetero 1.200 € horiek "Diru sarrerei" "Bi hilabete behineko gutxieneko gastuak" kenduz lortzen da: $1.200 \text{ €} \times 5 = 5.800 \text{ €} - 4.600 \text{ €}$.</p>	
<p>Diru sarrerak:</p> <p>Etxean bi heldu daude, baten soldata 1.200 eurokoa da hilabetero, eta, bestearena, 1.700 eurokoa.</p> <p>Beraz, bi hileko diru sarrerak 5.800 eurokoak dira.</p>	<p>Bi hilabete behineko gutxieneko gastuak 4.600 eurokoak dira.</p> <p>Hilabetero:</p> <ul style="list-style-type: none"> Janaria, garbiketa produktuak, medikamentuak...: 700 € Internet eta mugikorrak: 100 € Elektrizitatea eta gasa: 100 € Ura: 40 € Etxebizitzako jabeen komunitatea: 60 € Gasolina eta garraio publikoak: 200 € Aisia: 300 € Hipoteka edo alokairua: 700 €



Jolas taularen laukien txartelak. Bi hilabeteko gertaerak

Urtarrila - Otsaila

Zelako hotza!: elektrizitate eta gasean 300 € gehiago gastatu duzue.

Beharapenetan 400 € gastatu dituzue arropa erosten.

Guztira: 700 euroko gastu estra.

Erabakia

Igerilekurako bonuak (etxerako, urte osorako) 100 € kostatzen da. Beste urteetan hartu izan duzue, aurten ere bai?



Martxoa - Apirila

Pisuko aseguru: 300 euroko gastua.

Etxeko autoak azterketa behar du eta IAT [ITV] pasatu behar du: 250 euroko gastua.

Guztira: 550 euroko gastu estra.

Erabakia

Oporretarako, aukera hauetako bat aukeratu:

- Ez egin ezer berezirik. 0 euroko gastua.
- Irteera bat egin mendira eta beste bat inguruko herriren batera. 100 euroko gastua.
- 3 egunetako bidaiatxo bat egin. 400 euroko gastua.
- Oporretan bidaia luzeago bat egin urrunago. 800 euroko gastua.
- Kanariar irletara joan oporretan. 1.500 euroko gastua.



Maiatza - Ekaina

Udako arropa, bainujantziak... eta beste hainbat gauza erosi behar dituzue guztiontzat: 500 euroko gastua.

Helduetako batek **ekainean aparteko ordainsaria** dauka, beraz irabaziak 1.500 euro handitu dira.

Guztira: 1.000 € gehiago dituzue gastatzeko.

Erabakiak:

- Patinetea erosiko duzue bi ume/gazteentzat? Horrela bada gastatu 150 €.
- Helduek spa batera joan nahi dute egun batean. Hori egitekotan gastatu 100 €.



Uztaila - Abuztua

Etxeko ume bat herriko udalekuetara joango da goizetan. 100 €.

Aisialdian, izozkietan... 300 € gehiago gastatu dituzue.

Guztira: 400 euroko gastu estra.

Erabakia

Non pasako dituzuen udako oporrak?

- Egun osoko irteera batzuk egin. 300 euroko gastua.
- Asteburu bat landetxe batean pasatuko duzue eta irteera batzuk egingo dituzue. 600 euroko gastua.
- Aste bateko bidaia egin. 1.200 euroko gastua.
- Kostaldera, apartamentu batera 2 aste joango zarete. 2.000 euroko gastua.
- Bi asteko bidaia egingo duzue atzerrian. 3.000 euroko gastua.



Iraila - Urria

Kurtso berria hasi da eta liburu eta **eskolako material** berriak erosi behar dira: 400 euroko gastua.

Kotxeko asegurua: 350 euroko gastua.

Neguko arropa behar duzue denok: 450 euroko gastua.

Guztira: 1.200 €-ko gastu estra.

Erabakia

Irailan herriko jaiak dira. Zenbat gastatuko duzue?

- Ez asko: 50 €.
- Herriko bazkarian guztiok parte hartu eta barraketan egunen bat: 150 €.
- Herriko bazkarian guztiok parte hartu eta barraketan egunero: 250 €.



Azaroa - Abendua

Zelako hotza!: **elektrizitate eta gasean** 300 € gehiago gastatu dituzue.

Jaietan, etxeko afari eta bazkarietan 300 € gehiago.

Jaietan aisian beste 400 € gehiago.

Izako-osaben, iloben eta aiton-amonon oparietan 300 € gastatu dituzue.

Helduetako batek abenduan **aparteko ordainsaria** dauka; beraz, **irabaziak** 1.500 € handitu dira.

Guztira: 200 € gehiago dituzue gastatzeko.

Erabakia:

Zenbat gastatuko duzue etxebizitzako kideen oparietan?

- 100 €. Opari merkeak baina politak.
- 300 €. Opari pare bat garestiagoak dira (adibidez, bideo-jokoen kontsola berria).
- 500 €. Guztiek eduki dituzte opari garestiagoak.



Zorizko gertaeren txartelak

"A" Zorizko txartela

Betaurrekoak konpondu beharra: **100 euroko gastua.**

Eta horrez gain: **Erabakia:**

Egunero otorduetan erabiltzen dituzuen aukietako bat apurtu da eta besteak ez daude egoera onean. Bi aukera dituzue:

- Aulki berriak erosi orain: **200 euroko gastua.**
- Diru aldetik eskas bazabiltzate, orain konponketa bat egin eta hurrengo bi hilabeteetan egin erosketa [aukera hori ezin da hartu azaro-abenduko laukian]. Aukera honen ondorioa: orain **50 euroko gastua** eta gainera hurrengo bi hilabeteetan **200 euroko gastua.**



"B" Zorizko txartela

Izozkailua apurtu eta berria erosi behar da: **350 euroko gastua.**



"C" Zorizko txartela



Kotxeko bi gurpil aldatu behar dira:
250 euroko gastua.

"D" Zorizko txartela



Kotxeari kolpe bat eman diote kalean zegoela eta konpondu behar da:
150 euroko gastua.

Eta horretaz gain: **Erabakia:**

Kotxez bi ordutara bizi den izeko/osaba/lagun batez gogoratu zarete, aspaldi ez duzue ikusten. Bisita bat egitea burutik pasatu zaizue. Bisitatuko duzue? Erabaki ondoren jakingo duzue prezioa.

(Informazioa bankarentzat: kostua 50 eurokoa da guztira -gasolina, autopistako bidesaria eta eramango diren pasteltxo batzuk-).

"E" Zorizko txartela



Etxeko helduetako bati enpresan "ERTE" bat aplikatu diote bi hilabete hauetako batetan.

Hori dela eta, **bi hilabete hauetan 500 € gutxiago kobratuko** duzue.

"F" Zorizko txartela



Obrak egin behar dira zuen etxebizitzako eraikinean: hurrengo lauki guztietan (hau da, bi hilabetean behin) **200 euroko gastu estra** edukiko duzue.

"G" Zorizko txartela



Arazo bat dela eta, elektrikaria deitu behar izan duzue: **100 euroko gastua**.

Erabakia:

Etxeko sare elektrikoan aldaketa batzuk egitea komenigarria da, bestela edukitako arazoa urtez urte errepikatuko zen. Konpondu nahi duzue? Hala balitz, **200 €** gehiago kostatuko luke horrek.

"H" Zorizko txartela



Erabakia:

Lagun batzuek etxe bat daukate kostaldean/ mendian. Asteburua pasatzera gonbidatzen zaituztete. Gastuak bidaiarenak eta janariarenak (guztion artean ordaintzen dira) izango lirateke. Joan nahi duzue? Erabaki ondoren jakingo duzue prezioa.

(Informazioa bankarentzat: kostua 50 eurokoa da guztira).

"I" Zorizko txartela



Erabakia:

Asko gustatuko litzaizuekeen antzerki ikuskizun bat egongo da. Baina kontuz! Sarrerak zinemakoak baino garestiagoak dira. Joan nahi duzue? Erabaki ondoren jakingo duzue prezioa.

(Informazioa bankarentzat: kostua 5 euro-koa da guztira).

"J" Zorizko txartela



Erabakia:

Telebista berri eta handiago bat erostea pentsatu duzue. Erosiko duzue?

Horrela bada **400 €** gastatuko dituzue.



Poztasun taula "Urtea" bukatu ostean poztasuna "neurtzeko"			
Txartela edo bestelakoak	Gertaera edo hartu beharreko erabakia	Hartutako erabakia, halakorik egotekotan	Poztasuna (😊-tan neurtuta)
Urtarrila-otsaila	Oporrez gozatu	200 😊
	Igerilekuko bonua hartu da?	Ez <input type="checkbox"/>	0 😊
		Bai <input type="checkbox"/>	100 😊
Martxoa - apirila	Udaberri hau oso alaitsua izan da.	300 😊
	Oporrak:	a) Ezer berezirik.	0 😊
		b) Bi irteera.	300 😊
		c) 3 eguneko bidaiatxo.	310 😊
		d) Bidaia luzea.	350 😊
		e) Kanariar irletara.	400 😊
Maiatza - ekaina	Umeek/gazteek pozik bukatu dute kurtsoa	200 😊
	Patinetea erosi	Bai <input type="checkbox"/>	30 😊
		Ez <input type="checkbox"/>	0 😊
	Spara joan	Bai <input type="checkbox"/>	30 😊
		Ez <input type="checkbox"/>	0 😊
Uztaila - abuztua	Ze ondo! Uda! Oporrak!	400 😊
	Udako oporrak	a) Eguneko irteerak.	400 😊
		b) Asteburua + irteerak.	500 😊
		c) Asteko bidaia.	600 😊
		d) 2 aste kostaldera.	800 😊
		e) 2 aste atzerrian.	900 😊
Iraila - urria	Umeek/gazteek berriz ikusten dituzte klase kideak.	300 😊
	Herriko jaiak	a) Ez gastatu asko.	100 😊
		b) Bazkaria + barrakak.	200 😊
		c) Bazkaria + barrakak egunero.	250 😊
Azaroa - abendua	Neguak badu bere xarma.	200 😊
	Opariak	a) Merke eta politak.	100 😊
		b) Pare bat garestiagoak.	130 😊
		c) Guztiak garestiagoak.	160 😊



Poztasun taula "Urtea" bukatu ostean poztasuna "neurtzeko"			
Txartela edo bestelakoak	Gertaera edo hartu beharreko erabakia	Hartutako erabakia, halakorik egotekotan	Poztasuna (😊-tan neurtuta)
Urtea bukatzerakoan	Zenbat diru dauka etxeak pasa den urtearen hasierarekin konparatuz?	Askoz gutxiago (ez da 1.000 eurora heltzen).	0 😊
		Antzekoa: 1.000-2.000 €.	300 😊
		Nahiko gehiago: 2.001-4.000 €.	500 😊
		Askoz gehiago (4.000 € baino gehiago).	600 😊
	Mailegurik eskatu behar izan duzu diru faltagatik? (Horrek estresa eta kezka sortzen ditu).	Ez <input type="checkbox"/>	0 😊
	Bai <input type="checkbox"/>	Kendu 200 😊 eskatutako 1.000 € bakoitzeko	
Zorizko A txartela	Betaurrekoak eta aulkiak konpondu.	Berdin dio erabakiak, ondoriorik ez.	0 😊
Zorizko B txartela	Izokailua apurtu.	Ondoriorik ez.	0 😊
Zorizko C txartela	Kotxeko gurpilak.	Ondoriorik ez.	0 😊
Zorizko D txartela	Bisita egin.	Bai <input type="checkbox"/>	200 😊
		Ez <input type="checkbox"/>	0 😊
Zorizko E txartela	ERTE-a. (Horrek estresa eta kezka sortzen ditu).	Kendu 100 😊
Zorizko F txartela	Obrak etxebizitzan.	Ondoriorik ez.	0 😊
Zorizko G txartela	Sare elektrikoan aldaketak egin.	Bai <input type="checkbox"/>	30 😊
		Ez <input type="checkbox"/>	0 😊
Zorizko H txartela	Asteburua lagun-en etxean.	Bai <input type="checkbox"/>	150 😊
		Ez <input type="checkbox"/>	0 😊
Zorizko I txartela	Antzerki ikuskizuna ikusi.	Bai <input type="checkbox"/>	150 😊
		Ez <input type="checkbox"/>	0 😊
Zorizko J txartela	Telebista berria erosi.	Bai <input type="checkbox"/>	20 😊
		Ez <input type="checkbox"/>	0 😊

II. Eranskina.

Moneta soziala (tokikoa) eta diruaren zirkulazioa

1. Dinamikan ikasi beharreko kontzeptuak

- Tokiko ekonomian euroa erabiltzearen aldean moneta osagarriaren abantaila.
- Zirkulazioan dagoen diru eskasiaren eta kapitalen ihesaren arazoa.
- Moneta-masaren, salerosketen, diruaren zirkulazioaren eta faktore biderkatzailearen kontzeptuak.

2. Jokoaren sekuentzia

Ikasgela bi taldetan banatuko dugu, talde bakoitzak gutxi gorabehera 12 ikasle izango baititu. Jokalari bakoitzak azpian dagoen taulako rolen bat izango du. "Kontsumitzaileen" kopurua aldakorra da, baina gutxienez 3 egongo dira. Taldean nahikoa jende ez badago, gasolina-saltzailearen edo dentistaren rola ezaba daitezke.

Talde bakoitza zirkuluan jarriko da mahaiaren inguruan, eta irakasleak txandak dinamizatuko ditu. Txanda bakoitza amaitutakoan, saski komunean zenbat billete gelditu diren zenbatu/kalkulatuko da.

Irakasleak jokoaren argibideak emango ditu eta rol bakoitzaren identifikazio-panelak banatuko ditu. Horretan izena eta bere tarifa azalduko dira. Jokalari bakoitzak rol bat interpretatzen du eta guztiek ikusteko moduko izena eta tarifa ditu, taula honetan adierazten den bezala:

Rolaren izena	Salmenta	Tarifa	Dirua saskira itzuliko du?	Erosketa	Ekintzak
Web_salmenta	Produktu mota guztiak	2 billete	Ez	Ez	Ez du txandan parte hartzen Jasotako dirua beste herrialde batzuetara doa
Brokerra-Finantzak	Inbertsio-produktuak	5 billete	Ez	Ez	Ez du txandan parte hartzen Jasotako diruak finantza-ekonomiara ihes egiten du
Hipermerkatua	Elikagaiak	3 billete	1 billete	Ez	Ez du txandan parte hartzen
Gasolindegia	Erregaia	4 billete	Ez	Ez	Ez du txandan parte hartzen
Baserritarren merkatua	Elikagaiak	1 billete	Bai	Bai	Erosi eta saltzea
Jatetxea	Janariak	2 billete	Bai	Bai	Erosi eta saltzea
Merkataritza	Produktuak	4 billete	Bai	Bai	Erosi eta saltzea
Dentista	Osasun-zerbitzuak	4 billete	Bai	Bai	Erosi eta saltzea
1. kontsumitzailea	Ez	-----	-----	Bai	Bakarrik erosi
2. kontsumitzailea	Ez	-----	-----	Bai	Bakarrik erosi
3. kontsumitzailea	Ez	-----	-----	Bai	Bakarrik erosi
4. kontsumitzailea	Ez	-----	-----	Bai	Bakarrik erosi
Etab.					

Billeteek lanordu, ondasun eta zerbitzuak erosteko dirua adierazten dute, hau da, partaide bakoitzari dagokiona diruagatik trukatzeko balio diona. Adibidez, dentistak kontsulta-saio bat saltzen du 4 txartelen truke, edo jatetxeak janariak saltzen ditu 2 txartelen truke, etab.

Salerosketak egiteko dirua mahaiaren erdian dagoen saski batean dago, eta 100 billete ditu, komunitate osoaren eskura. Edonork erabil ditzake salerosketak egiteko.

Diru hori komunitateari dagokion moneta-masa da. Norbaitek zerbait erosten duenean, saski komunetik aterako du dirua, eta hautatutako hornitzaileari entregatuko dio. Hornitzailea komunitatekoa (tokiko ekonomiakoa) bada, jasotako dirua saski komunitatera itzuliko du txandaren amaieran, beraz, diruak komunitatean gelditzen jarraituko du; bien bitartean, hornitzailea komunitatekoa ez bada (web-salmenta, brokerra, gasolindegia...), jasotako dirua ez da itzuliko, eta tokiko ekonomiatik desagertuko da.

Tokiko ekonomian diru-kopuru asko mantentzen den heinean, lurraldeari edo komunitateari lotutako aberastasuna handiagoa izango da, eta, beraz, kanpoarekiko mendekotasunak behera egingo du. Gainera, ekonomia errearen aurrean finantza-ekonomia sarizetik urrun, ez du espekulatzeko barruan ematen diren salerosketa edo jarduerekin. Era berean, oso zeregin garrantzitsua du enplegua eratzeko, tokiko salerosketak sortzen direnean, komunitatearen barruan lan-beharrak handiagoak baitira.

Moderatzaileak txandak banatuko dizkio jokalaria bakoitzari mahaiaren inguruan salerosketa egiteko (berak nahi duen bezala). Adibidez: "galletak, pilak eta liburu bat erosi ditu HIPER batean" eta $3 \times 3 = 9$ billete ordaindu ditu saski komunetik. HIPERren rola duen jokalaria entregatu dizkio. Hala, hurrengo txandara pasako da.

Txanda bakoitzean kontsumitzaile bakoitzak salerosketa bat egingo du. Beste jokalaria joko du, eta tarifa ordainduko die euren eskearen arabera.

Txandaren amaieran saskian gelditzen den billete-kopurua idatziko du moderatzaileak edo horretarako izendatutako norbaitek.

Dinamika horretan, jokoak aurrera egin ahala, billeteen ihesak ikusten joango gara mahaitik kanpo. Beraz, dirua urritzen hasiko da, eta parte-hartzaileek hausnartu beharko dute nola saihestu dirurik gabe geratzea.

Jokoan zehar, moderatzaileak eztabaidak sustatuko ditu eta hausnarketarako oharrik emango ditu ere bai. Halaber, dinamikan zuzenketak egingo ditu komunitatean moneta-masa ez galtzeko, ondoren azaltzen diren kontzeptuen arabera:

Adibidez, zenbait txandaren ondoren, saskitik billeteen erdiak ihes egin duela ikusten bada, eska diezaiekegu partaideei ondorioak ateratzeko... (esaterako: "Eta "web-salmentan" erosteari uzten badiogu?").

Emaizaren adibidea txandak amaitu ondoren:

Hasieran mahaiaren gainean jarritako 100 billeteetatik, 10 txanden ondoren (**txanden kopurua gutxi gorabeherakoa da**, ziurrenik, 5-6 inguru izango dira denboraren arabera) honako bilakaera hau aurki dezakegu:

Txanda	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	Batura
Billeteak	100	85	73	63	59	45	33	24	19	14	515

Beraz, 10 txanden ondoren, hasierako 100 billeteekin lortutako faktore biderkatzailea honela kalkulatu da:

$$10 \text{ LM (tokiko biderkatzailea)} = 515/100 = 5,15$$

Ariketa honen ondorio modura, erraz antzeman daiteke tokiko ekonomia indartu nahi badugu, sistemak antolatzeke orduan saiatu behar dela diruari tokiko ekonomiaz kanpo ez ihes egiten uzten. Hala, ahalik eta denborarik luzeenean kopururik gehiena mantendu behar da.

Emaitza ezin hobea da 10 txanden ondoren 10eko faktore biderkatzailea lortzea (emaitzarik hoberena 6 txandekin 6 izango zen, 5 txandekin 5, etabar):

$$10 \text{ LM (tokiko biderkatzailea)} = (100+100+100+100+100+100+100+100+100+100) / 100 = 10$$

Jokoa hasteko erabili ditugun 100 billeteek "saski komunean" jarraitzen dute, eta bakarrik eskuz aldatu dute. Hau da, ez du ihes egin tokiko ekonomian dagoen diruak, horrenbestez, ez da zorpetu behar.

Izan ere, modu mugagabeen jarrai dezakegu jokatzen.

Noski, partaideek erabakitzen badute ez gastatzea komunitate-dirua tokiko ekonomian jarduten ez duten hornitzaileetan, diruak ez du ihes egingo. Seguru asko, halako akordio soziala ez da gertatuko gizarte errealean, beraz, beste konponbide sendoago bat bilatu behar da: "trukerako tokiko moneta" erabiltzea, komunitateko salerosketa guztien ehuneko bati eusteko.

Txanden ondoren alternatiba bat aurkeztea:

"Trukerako tokiko monetak edo sozialak" bakarrik komunitateko kideen artean funtzionatzen du. Soilik komunitatean jarduten duten pertsonak, enpresek eta negozioek erabil dezakete moneta hori... eta funtzionatzeko ondorengo hau bermatu behar da:

1. Kontsumitzaileek moneta lortzeko erostea besterik ez dute. Bestela, soldataren zati bat moneta horretan jaso dezakete.
2. Kontsumitzaileek moneta hori ondasunak eta zerbitzuak erosteko gastatuko dute onesten duten saltokietan.
3. Enpresek eta negozioek moneta hori jasoko dute kontsumitzaileen eskutik, azkenekoek produktuak erosi nahi badituzte.
4. Aldi berean, moneta horrekin hornitzaileei erosi edo langileei soldataren zati bat ordaintzearen bidez enpresek eta negozioek moneta hori gastatzeko aukera izan behar dute.
5. Ondo funtzionatzeko, saltokiek hornitzaileen zati bat aldatu beharko dute tokiko ekonomian % 100 funtzionatzeko. Gainera, horrekin komunitatearen nortasuna indartzen da, eta kontsumo zirkularreko sareak sortzen dira.
6. Zirkulua erabat itxiko litzateke erakunde publikoek moneta hori onartuko balute zergak ordaintzeko, eta beraiek ordainduko balituzte beren gizarte-laguntzak moneta horrekin.

Moneta sozial bat berezko balio batek babesten du, modu bat da bere moneta sozialaren unitate bakoitzaren atzean beste moneta bat egotea; adibidez, Ipar Euskal Herrian EUSKO moneta existitzen da, EUSKO bakoitza EURO batek babesten du. Moneta soziala erabiltzen den bitartean, bere ekosisteman parte hartzen da, komunitateak onura jasotzen du, tokiko produktuei mesede egiten zaie eta moneta-subiranotasuna sortzen da. Prozesu horretan, moneta soziala hura babesten duen monetarekin edo balioarekin truka daiteke, nahi izanez gero.

→ **Eztabaidarako ariketak:**

1. Galdetu ikasleei: Zer da tokiko ekonomian jardutea? Erantzun ondoren, azalduko zaie zer den hemen ehuneko garrantzitsuan (adibidez, negozioaren % 30) tokiko moneta edo moneta sozialarekin saldu eta erostea.
2. Kanpoarekiko mendekotasuna: Zalantzarik gabe, tokiko ekonomiari ez badago (fabrikek itxi dute, artisautza-ekoizpena desagertu da, ez dago nekazaritzarik, etab.) eta guztiek zerbitzuen sektorean lan egiten badugu (zerbitzariak, turismoa, merkataritza...), gure bizi ekonomikoa gehiegiz da kanpoaldearen araberakoa (COVID-19arekin ikusi den bezala).
3. Enpresa hauetan gastatzen dugun dirutik zenbat itzultzen den tokiko merkatura kontuan hartuta, sailkatu enpresa hauek honako moduan: *ezer*, *ia ezer*, *zerbait*, *nahikoa* edo *ia guztia*.

Zein neurritan itzultzen den enpresa horietan gastatzen dugun dirua tokiko merkatura					
Enpresa	ezer	ia ezer	zerbait	nahikoa	ia guztia
Mercadona	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Euskotren	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Euskaltel	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Kutxabank	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Repsol gasolindegia	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Zara	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Forum Sport	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Amazon	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
BBVA bankua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Iberdrola	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Eroski	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Okindegia*	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Fruta-denda*	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Zapata-denda*	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Liburu-denda*	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

* Adibide hauek ez dira frankiziak, tokiko dendak baizik.

3. Azken ondorioa

Beraz, baieztatu daitezke trukatzeko tokiko moneta edo moneta soziala erabilia honako hauek lortzen direla:


1. Diruak tokiko ekonomiaz kanpo ez ihes egitea.
2. Espekulatzeko dirua ez biltegiatzea eta zirkulaziotik ez kentzea.
3. Zorpetu beharra saihestea, ihes egindako dirua birjartzeko, eta, horrela, zorrak sortutako interesak aurrezteko.
4. Salerosketa-kopurua eta jarduera ekonomikoaren bolumen guztia gehitzea.
5. Tokiko ekonomiak berreraikitzea, eta kontsumo zirkularreko sareak sortzea guztien onurarako.


4. Hemen lantzen ez diren alboko gaiak (sinplifikatzeko)

1. **Bankuen irudia:** dirua urria denean, bankuek kredituak ematen dituzte, eta interesekin itzuli behar dira. Hala, zorrak tokiko komunitateak ito ditzake. Gainera, ekonomia errealetik dirua ateratzeko aukera ematen dute finantza-ekonomiara eramateko, eta, ondorioz, pertsonen bizitzarako diru urriko garaiak eraginez.
2. “Saski komunaz” hitz egin dugunez, alboratu dugu **diruaren banakako banaketa**. Nolanahi ere, horrek isla ditzake aberastasuna banatzean komunitatean desberdintasunak eta bazterketak.
3. **Dirua pilatzen** bada, ez du zirkulatzen ekonomia errealean, eta horrek urritasuna dakar.
4. **Ekonomia-komunitate motak.** Hiru adibide: euren burua hornitzeko gaitasun handia dutenak (bizitzeko behar duten guztia ekoizten dute: janaria, elikagaiak, sendagaiak...); labore bakarrean oinarritzen direnak eta gainerako guztiaz hornitu behar direnak (produktu bakarra ekoiztea, adibidez petrolio, arrosa...); eta zerbitzu-komunitateak (turismoa, gastronomia, artisautza), kanpotik hornitu behar direnak.

Dinamika hau Carlos Lazarak (Economistas sin Fronteras) eta Ekhilurrek egin dute.

Billeteak inprimatzeko





III. Eranskina.

Gizartean gailentzen diren estereotipoen dinamika

Hurrengo orrialdeetan fitxak inprimatzeko moduko formatu egokian jaso dira:

**EKONOMIA
KAPITALISTAN...
ZEIN SUBJEKTUREKIN
LOTZEN DUZUE
(MASKULINOA
EDO FEMENINOA)
EZAUGARRI HAUETAKO
BAKOITZA?**

BEREKOIA

**ASEBETETZEA ETA
IRABAZI PERTSONALA
BAKARRIK BILATZEN DU**

**BERE KEZKA BAKARRA
LAN-MERKATUA
DA, BERE DENBORA
GUZTIA HELDUARORA
BIDERATZEN BAITU**

AUTOSUFIZIENTEA

**MEMORIA, JUSTIZIA,
ELKARREKIKOTASUN
ETA ELKARTASUN
SENTIMENDURIK GABEA**

**PERTSONAK ZAINTEAZ
ARDURATZEN DA, ETA
ORDAINDU GABEKO LAN
ERREPRODUKTIBOEZ,
MAITASUNAGATIK**

**NAHIKOA DU
MAITASUNAREN
ETA AITORTZAREN
SARIAREKIN**

BESTEEN BEHARRAK
BEREEN AURRETIK
JARTZEN DITU

MENDEKOA

LAN-MERKATUAN PARTE
HARTZEKO EDO EZ
HARTZEKO AUKERA DU

LAN-MERKATUAN DUTEN
PARTE-HARTZEA
BETI DAGO
FAMILIA-BIZITZAREN
ALDAKETEN MENDE

IV. Eranskina.

Bizitza duina

Etxebizitza duin bat eskuratzea pertsona oroien ezinbesteko baldintza da, eta oinarrizko behartzat jotzen da. Eskubide hori garrantzi handikoa da bizitza pertsonala, familiara eta komunitatekoa garatzeko, eta, hala denez, herritarren eskubide sozialtzat jotzen da Europako konstituzio guztietan eta gainerako legedietan. Espainiako Konstituzioaren kasuan, honela dago jasota etxebizitzarako eskubidea, 47. artikuluan.

“Espainol guztiek etxebizitza duin eta egokizko bat izateko eskubidea dute. Botere publikoek behar diren baldintzak bultzatuko dituzte eta arau erakoak ezarriko eskubide hau egiaztatzen, lurrunaren erabilera arautuz interes orokorraren arabera espekulazioa baztertzeko. Erkidegoak erakunde publikoetako hiri ekintzek dakartzaten gainbalioetan parte hartuko du.”

Etxebizitza oinarrizko funtzio soziala betetzen duen ondasun bat da, ostatu gisa balio du, baina, aldi berean, ondareko ondasun bat da, salgai bat, inbertsio ondasun bat, merkatu librearen berezko dinamikek baldintzatua.

Etxebizitzaren dimentsio bikoitz horrek botere publikoen gain uzten du ondorio garrantzitsuak dituen erabaki bat. Horiek horrela, etxebizitzaren alorreko jarduketara publikoak bi ikuspegitatik planteatu daitezke: bata, ikuspegi soziala, etxebizitza oinarrizko behar batekin zuzenean lotutako ondasuntzat jotzen duena, bizitzaarekin, hain zuzen, eta funtsezko eskubide sozial baten objektutzat duena; edo bestea, ikuspegi ekonomikoa, zeinaren arabera etxebizitza ondasun ekonomikoa bat den, salgai bat, aktibo bat.

Higiezinaren jabetzaren berezitasunak eta merkatuarekiko lotura estua islatuta daude Europako estatu batzuetako antolamenduetan, zaila baita etxebizitzarako eskubidea egiazko eskubidetzat jotzea, eta, gainera, oso ahula baita beste eskubide ekonomikoa batzuekin alderatuta, adibidez, jabetza eskubidearekin.

2008ko krisiak higiezinaren merkatuan izandako eraginaren ondorioz, eskubide hori gaurkotetasun handikoa da, ugaritu egin direlako ez ordaintzeagatik hipoteka betearazteko prozesuak, eta horietako asko etxegabetzeen bidez ebatzen direlako.

Etxegabetzea edo maizter botatzea betearazte prozesuaren azken zatia da, eta bertan geratzen da agerian arazo ekonomikoa baten alderdi soziala.

Bibliografia

El Derecho a una vivienda digna en España. Crisis residencial: Origen, consecuencias y respuesta de los poderes públicos Pilar Garrido. EHU.

Cano, G. eta Etxezarreta, A. (2014). LA CRISIS DE LOS DESAHUCIOS EN ESPAÑA: RESPUESTAS INSTITUCIONALES Y CIUDADANAS. Revista de Economía Crítica, 17 zk., lehen seihilekoa 2014, (44-57), ISSN 2013-5254.